



KALITATE- ETA INGURUMEN-POLITIKA

OSATEK Osakidetzaren zerbitzu erakundea da, sozietate publikoaren izaera du, eta EAE osoan dago zabaldua. Bere eginkizun nagusiak irudiaren bidezko diagnostikoa eta presentziazkoa ez den herritarrekiko arreta dira.

Gure **Misioa** puntu hauetan oinarritzen da:

EAEko osasun- eta gizarte-sistema publikoak babestu, oinarri teknologikoa duten zerbitzuak emanez eta hornituz.

Gure aktibitate ataletan (I+G+B) lortutako jakintza sortzen eta zabaltzen lagundu.

Osasun zerbitzu espezializatuak eskaintzen dituen erakundea izanda, uste dugu gure aktiborik baliotsuena langileak direla.

Gure ikuspuntutik, **kalitatearen eta ingurumenaren kudeaketa** lan-kultura dira, edo areago, era batean edo bestean gure zerbitzuen hartzaile diren pertsonen gogobetetzea lortzera bideratutako zenbait jardueratan zehazturiko jarrera pertsonala. Politika horren baitan **helburu hauek** ditugu:

- **Pazienteak eta haien familiak:** proba agindu denetik, eta egin bitartean, zerbitzua ahalik eta lasterren eskaintzea; tratuan arretarik onena eskaintzea; proba egin bitartean ongizaterik handiena eskaintzea; eta proba egin bitartean eta egin ondoren informazio egokia eskaintzea.
- **EMak eskatzen dituzten medikuak:** kalitatezko txosten argia eta osoa eskaini, diagnostikoan laguntzeko, eta baita laguntza ere gai zientifikoetan.
- **Pertsonak:** parte-hartzea sustatzen duen lan-kultura zabaldu, etengabeko prestakuntza erraztu, atalen arteko informazioa eta komunikazioa erraztu, eta baita talde-lana ere. Horretarako, ahalegin guztiak egiten ditugu gure zerbitzuen hartzaileen asebetezte maila lortze aldera.
- **EAEko osasun- eta gizarte-sistema publikoak:** bi sistemak lagundu beren etxeetan dauden pertsonentzako definizio estrategikoan eta zerbitzu koordinatuak ematen, informazioaren eta komunikazioaren teknologietan oinarritutako dispositiboan laguntzarekin.

Hori guztia dela eta, goian aipatutako helburuak lortzeko eta jarduerari dagozkion berezko arriskuei aurre egiteko, baliabideak modu eraginkorrean kudeatuko ditu OSATEKek, eta lana baldintza legal, etiko eta teknikoekin egingo du. Erakundeko pertsonen garapen profesionala eta gaitasuna sustatuko ditu.

Bestalde, etengabeko hobekuntzaren aldeko apustuarekin bat eginda, konpromisoa hartzen du **segurtasuna** optimizatzeko eta Lan Arriskuen Prebentzioa kudeaketa-planean txertatzeko, eta baita sistemak behar dituen baliabideak ezarri eta langileei zabaltzeko ere. Horretarako, erakunde hau osatzen dutenen laguntza izango da.

Zuzendaritzak, OSATEKen jarduerak ingurumenean eraginik izan dezakeela jakitun, bere izaera eta tamainari dagokion politika gidatzeko asmoa du, eragin hori saihestu edo gutxitzen laguntzen duten helburuak ezartzeko erreferentzia moduan balioko duena.

OSATEKeko Zuzendaritzak, eta Zuzendari Gerenteak bereziki, konpromiso hauek hartzen dituzte eskaintzen dituen zerbitzuetan kalitatea eta ingurumena kudeatzeko sistema bat ezartzeko:

- **Etengabeko hobekuntzarekiko** konpromisoa. Horretarako, Erakundeko langileak motibatzen ditugu, lan horretan parte har dezaten, eta haien esku jartzen ditugu kalitatearekin eta ingurumenarekin lotutako helburuak lortzeko beharrezkoak diren baliabideak eta ezagutzak.
- Sistematika bat ezarri, kalitatearekin eta ingurumenarekin lotutako helburuak ezarri eta berrikusteko, jardueren eraginaren izaera eta tamainari egokituta.
- **Konpromisoa** ingurumenarekin lotutako gaitan Erakundeak bete beharreko baldintza legalak eta bestelakoak betetzeko. Konpromiso hori lotuta egongo da batetik, jardueren ingurumen-alderdiekin; eta bestetik, borondatez har litezkeen bestelako baldintzak betetzearekin.
- Kontuan hartzea OSATEKen jarduerarekin lotutako ingurumen-alderdi zuzenak edo zeharkakoak.
- **Kutsaduraren prebentzioaren** printzipioa martxan jarri egunerokoan, eta baita baliabide naturalak modu jasangarrian erabiltzea ere, batez ere urrienak; horretaz gain, ekintzak antolatu baliabide horien erabilera murrizteko eta klima-aldaketara egokitzeko, eta biodibertsitatea eta ekosistemak babesteko.
- **Politika honen berri eman** langile guztiei, eta baita erakundearen izenean lan egiten dutenei ere.
- Politika honi jarraipena eman, **interesdunen esku** jartzeko.

OSATEKeko profesional guztien ardura da Politika hau derrigor betetzea.

Bilbo, 2018ko martxoaren 6a.



Josu Xabier Llano Hernaiz
ZUZENDARI GERENTEA